

# COVID-19AREN AURREAN GAZTELEKUKO PROTOKOLOA

## 1. Jardueran parte hartzeko kontrol-neurriak

- Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu COVID-19arekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Hala izanez gero, arduradunari jakinarazi, Garazi Otxandorena Azurmendiri, 688 68 19 52 telefono-zenbakira deituz edo idatziz.
- Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu baldin eta COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) gutxienez aurreko 14 eguneko tartean. Epe horretan, segimendua egin behar du, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko.
- Parte-hartzaileak, guraso edo legezko erantzukizunpean, jardueran parte har dezake, nahiz eta arrisku taldekoa izan edo arrisku taldekoa den pertsona batekin bizi (60 urtetik gorakoa izateagatik, hipertentsio arteriala, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia, immunoeskasiak, edo haurdun egoteagatik edo aurreko afekzio medikoak izateagatik). **Parte hartzea erabakitzen badu, berak edo bere senideek duten arriskuaren berri jakinaraziko du erantzukizun adierazpenean.**

## 2. Higiene eta prebentziorako neurriak

- Derrigorrezkoa da uneoro maskarila jantzita edukitzea. Parte-hartzaileek ezin badute hornidura hori ziurtatu, antolakuntza arduratuko da parte-hartzaileei maskarak emateaz. Honekin batera, xaboia eta gel hidroalkoholikoa eskuragarri izango dira.
- Eskuak zerbitzuaren hasieran eta amaieran garbituko dira, baita hezitzaileak beharrezkoa ikusten duen bakoitzean ere; eta ekintzetan, distantziak ahalik eta gehien mantentzeko saiakera egingo da.
- Garbiketa eta desinfekzioa sakonagoak izatea zainduko da.

## 3. Kasu baieztatu bat dagoenean nola jardun:

- COVID-19ko kasu bat izan daitekeena identifikatzea: Jarduera garatu bitartean sintomak agertuz gero, hezitzaileak jarduera eten eta aurretik ezarritako segurtasun- eta distantzia-neurriak zorrotz bete beharko ditu eta familiarekin harremanetan jarri beharko du.
- COVID-19ko kasu bat baieztatu ondoren nola jardun. Erakundearen protokoloa martxan jarriko da, familiei egoeraren berri emango zaie eta uneoro Osakidetzaren gomendioei jarraituko zaie.

